

Nik, ARANTZA ARRAZOLA ITURBE, Hernaniko Udaleko idazkariordea, honako hau

ZIURTATZEN DUT:

Osoko Bilkurak, 2018ko maiatzaren 29an egindako bilkuran besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

8.- HERNANIKO GAZTE BILGUNEARI DIRU-LAGUNTZA, GAZTE-OLINPIADAK ANTOLATZEKO. -

| | |
|--------------------------|--------------------------------|
| Elkartearen izena: | Hernaniko Gazte Bilgunea |
| Diru-laguntza kopurua €: | 3.764,81€ |
| Aurrekontu Partida: | 1 02.481.01.912.00 2018 (4560) |
| Aurrekontu baimendua: | AD-2018-583 |

Diru-laguntzaren xedea eta azalpena:

Hernaniko Gazte Bilguneak, bi urtetik behin, Hernaniko Gazte Olinpiadak antolatzen ditu eta bertan ehunka herritarrek parte hartzen dute. Taldeka apuntatzen dira gazteak eta talde bakoitzak froga bat antolatzen du. Frogak ostegun arratsaldetan eta larunbatean, egunean zehar, antolatzen dira.

2018. urtean ere lan horri hasiera eman diote martxoan, ekaina bitarte hainbat ekintza antolatuaz. Ekintzak antolatzeak gasturik ez badu ere, aseguru etxearen kontratazioak eta lehen egunean jartzen duten karpak diru kopuru dezentea eskatzen du.

Irabazi asmorik gabeko ekintza hauen helburua herriko gazteak ohiko aisialdi ereduetatik aldentuz elkar ezagutzea eta elkarrekin, taldean, partekatzeke guzti eta espazio berriak sortzea da.

Hernaniko Udalaren xedea, besteen artean, gazteen jardun hauek sustatzea ere bada.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 16. artikuluan lankidetzaren hitzarmenak formalizatzeko irizpideak ezartzen ditu.

Aho batez erabakitzen da:

Hernaniko Udala eta Hernaniko Gazte Bilgunea elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea.

3.764,81 euroko diru-laguntza onartzea, hitzarmenaren laugarren klausulan xedatutakoa betez.

Ordainketa, hitzarmenaren bostgarren klausulan jasota bezala egingo da: diru-laguntzaren %60 (2258,89€) aurreratuko da erabaki honekin batera, eta gainontzeko %40 (1505,92€) justifikazioa aurkeztean.

Idatziz gera dadin eta ondorioak izan ditzan egin dut ziurtagiri hau, alkateordearen aginduz eta bere oniritziarekin, Hernanin bi mila eta hemezortziko ekainaren zortzian.

